

Narkoanalisia da torturaren izen berria Indian

“Narkoanalisia” deitzen zaio atxilotuei informazioa ateratzeko poliziak droga barbiturikoak erabiltzeari. Mundu osoan zabalduta dagoen “teknika” hau modan jarri da Indian, ustezko terroristei eta hiltzaileei gogoz eskaini nahi ez dutena emanarazteko. Batzuetan, epaileen baimenez egiten dute.

ARGAZKIAN GIZON BAT AGERI DA

etzanda, eta osasungintzako langile batek injekzioa sartzen dio besoan zainetik. Indiako *Frontline*n, argazkiari azpian honela ipini diote: “Narkoanalisia egiten ospitale batean, medikubaten eta anestesista baten aurrean, honek barbituriko bat sartzen dion unean. Gero psikologo kliniko batek galdezkatuko du atxilotua. Hemen ‘narkoanalizatzen’ ari direna susmagarria da Bangaloren 2004an gertatutako hilketaren batean. Epaileek libre utzi zuten, esanez narkoanalisia erabil daitekeela ikerketarako baina ez susmagarriak errudun jotzeko frogatzat”.

Filmetan norik ez ditu ikusi zerbitzu sekretuetako agenteak arerioaren espioiei pentotal famatua injektatzen, informazioa ateratzeko? Bestalde, tarteka jakiten da munduko edozein tokitako poliziak –Espainiakoak ez, irakurleak ondo dakienez– atxilotu bat drogatu egin duela eta honek komisaldegian jasandago haluzinazioak salatu dituela. Hala ere, Indiatik datorren albistearen berezitasuna narkoanalisiak –horrela deitzen zaio galdeketa droga erabiltzeari– eztabaida publikoa egotean datza. *Frontline* astekarian hala argitu du Sriram Lakshman-ek. Gizon hau abokatua da eta Munduko Bankuan ere lan egina da; bere curriculumak ez da erradikal batena, plazaratu duen artikulua ere ez.

Psikoterapian erabili izan da narkoanalisia, barbiturikoekin edo bestelako

drogekin gaixoari lo-abarra eragin eta barnean gorderik dauzkan sentsazio eta sentimenduak ateratzeko. Giza eskubideek axola handirik ez dieten poliziek ere erabiltzen dute, drogek larruazalean arrastorik uzten ez dutelako, atxilotuak inkomunikazio egunean nahasteko eta deklaratu aurretik menderatzeko. Poliziek atxilotuak legez kontra drogatzan dituzte munduan barrena, eta Indian berria zera da: horien erabilera aitortzeaz gain arautu ere egin nahi dutela.

Karnataka estatuko politikariek hartu dute gai honetan aitzindaritza. Indiako estaturik industrializatuenetakoa da Karnataka; Bangalore dauka hiriburua, “Indiako Silicon Valley” deitu izan dena, herrialdeko *software* enpresen erdia hemen dagoelako. Agian horregatik, atxilotuekin barbiturikoak erabiltzea ez dute hemen gehienek torturarekin nahasten, justiziaren eta poliziaren balizko aurrerapen teknikoekin baino.

Bangaloreko Barne Ministerioak argitaratu berria omen du eskuliburu bat narkoanalisiak, non esplikatzen diren teknika hau ondo erabiltzeko “jarduera onak”. Osasun Mentalerako eta Neurozientziarako Erakunde Nazionala bera elkarlanean ari da Bangaloreko Auzitegiak Zientzia Laborategiarekin (FSL, ingelesezko sigletan), eta laguntzen dio teknika honetan pertsonala trebatzen. Txan-

Argazkian, Indiako polizia taldea, tren geltoki batean zainketa zerbitzuan. Polizia indiarrek, atxilotuak drogatuta galdezkatzeko, lankide aproposak aurkitu ditu presoekin esperimendu psikologikoak egin nahi dituzten medikuetan, eta kriminalitatearen kontra eraginkortasuna lortu nahi duten epaileetan. Narkoanalisiaren balio terapeutikoak eta are ikerketarakoak ere aspaldi daude gezurtatuta. Aldiz, tortura “zuri” moduan bere zerbitzua egin dezake. Lakshmanek dioenez “literatura zientifikoak erakusten du narkoanalisiak erabilgarritasunik edukitzekotan zera daukala: susmagarria eramaten duela pentsatzea benetan aitortu duena baino gehiago aitortu duela”. Haluzinazioez gain, atxilotuaren kulparente sentimendua, poliziek hain gogokoa dutena. Indiako kontuez ari gara, Espainian edo Euskal Herrian ez da-eta inoiz erabili drogarik atxilotu bat “biguntzeko”.

txa makabroa ez balitz, esango genuke kalitatezko ISO eskuliburuetan sartu dutela tortura kimikoa.

Bangaloretik atera gabe, 300 preso omen daude narkoanalisia noiz egingo zain. Eta moda India osoan hedatu da. “Narkoanalisia –idatzi du Sriram Lakshmanek– gero eta usuago aipatzen da epaitegietan eta azkar ari dira onartzen poliziaren ikerketan egia bilatzeko tresna moduan, nahiz eta bere oinarri eta balio zientifikoak oso eztabaidagarriak izan. (...) Narkoanalisia oso gutxitan erabiltzen da gaur egun helburu terapeutikoekin, (...) baina Indiako polizia askok eta ikerketa agentziekin lotuta daudenek uste dute ‘urrezko giltza’ dela kasu zailak argitzeko orduan”.

Atxilotuak haluzinatu egingo du

“Egiaren serum” edo “egiaren drogak” aspaldikoak dira, XX. mende hasierakoak. Eskopolamina deitua, adibidez, lehenbizikoz 1922an erabili zen poliziaren ikerketa batean, ofizialki onartuta. 1930eko urteetan psikoterapian halako izen bat lortu zuten barbiturikoek. Amerikako Estatu Batuetako armadak eta inteligentzi zerbitzuek “egiaren drogak” garatzen segitu zuten gerra ondoren. CIAk berak –Lakshmanek dioenez– aitortzen du erabili izan dituela galdeketa beste taktiken artean. “CIAren galdeketa eskuliburu zaharrek onartzen dute ‘egiaren drogak’ probetxuzkoak gerta daitezkeela



atxilotuen erresistentzia makurrarazteko, beste metodoekin lortu ezin denean, baina azkenean eragin ditza-keela jokabide psikotikoak ere, haluzi- nazioak, ameskeriak, egia ustezko gezu- rrak eta desorientazioa”.

Hala ere, Bangaloreko forenseek narkoanalisisa gero eta sarriago erabil- tzen dute. Horretarako, atxilotuari sodio-pentotala injektatzen diote eta horrekin batera beste hiru test egiten: profil psikologikoa, poligrafo edo “gezurren detektagailua” eta *brain map- ping* delakoa, garunaren ikerketa grafi- koa. Bangaloreko Victoria Hospital-en egiten dira narkoanalisiok.

FSL polizia forensearen buru B. M. Mohan-ek esaten omen du narkoanali- siak fruitu onak ematen dituela. Beste mediku eta zientzialari askok alderan- tizikoa diote: eskopolamina, sodio-

pentotala edo sodio-amitala hartuta atxilotuak deklaritzen duena ez dela derrigor egia. Chittaranjan Andrade doktorearen hitzak bere eginez, Lakshmanek idatzi du: “Erabat kon- tziante dagoen pertsona bat iritsi dai- teke sinestera benetan gertatu ez den zerbait. Ikerketa askok erakutsi dute hau. (...) Pentotalez egindako narko- analisisan, inhibizioak makalago daude- nean, pazientearen gogoan azaldu dai- tezke irudipenak. Pazienteak esan ditzake egia izatea nahiko lukeen baina gertatu ez diren gauzak”.

Munduko zientzialariei muzin egin- da, Bangaloren teknika hauek sustatzen dituzten polizia adierazi dute laster publikatuko dituztela beren esperien- tzien emaitzak, eta orduan erakutsiko dutela metodo honen onura. Argudio horiekin ez dituzte mediku gehienak

konbentzitu, baina bai aldiz epaile bat baino gehiago. Eta aberrazioraino iritsi dira zenbait epaitegitan. Madras estatu- ko Auzitegi Gorenak, esate baterako, narkoanalisisa derrigortu zuen akusatu bat: “Laborategira joan beharra dauka gogoz kontra bada ere test horiek egite- ra, baina test horietan esango duena bere gogoz esango du”. Justiziak harro- keriaz dio itsua dela...

Narkoanalisisa tortura mota bat dela asko demostratu beharrik ez dago: giza- kiaren adimena fisikoki bortxatzeko sis- tema da. Baina tortura errazago justifika daiteke iritzi publikoaren aurrean tar- tean hilketa latzak edo terrorismo fama- tua daudenean. Indiari gagozkiolarik, hona hiru faktore torturaren alde. Bata, Bangaloreko esperientziak ematen dio sodio-pentotalari eta narkoanalisiari halako aurrerapen irudi bat. Bia, Ameri- kako Estatu Batuetan ere justifikatzen da tortura emergentziatzko egoeran –2001eko irailaren 11z geroztik dena da emergentzia–, eta CIAk berak pentotala erabiltzen duela liburu askotan publika- tu da. Eta hiru, Indiako polizia diote gaiztaginei aurre egiteko baliabide urrie- giak dauzkatela, eta beraz, emaitzak lor- tzeke behar dutela narkoanalisisa beren armategietan.

Indian ere badira gizarte mugimen- duak torturaren kontra ari direnak. Orain kasu famatu bat nola erabakiko den zain daude: lapur famatu batek, Krushi Cooperative Urban Bank atra- katu zuen Venkateswara Rao-k, ez du sinatu nahi narkoanalisisa egin diezaioten baimena, eta Delhiko Auzitegi Gorenak aurten erabaki behar du. ■

<http://www.argia.com/nethurbil.php> helbidean, gai honi buruzko informazio gehiago eta Interneteko loturak.



Konfiantza delako garrantzitsuena

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu, etengabe produktu berriak eta zerbitzu berriak bilatzearen bidez.

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani, 4 - 20084 DONOSTIA
e-posta: zinkunegi@euskalnet.net
TEL: 943 420 824

G A R R A N T I A